

Euskaltzaindiak, joan den ostiralean egindako bileran, onartu zuen Ibon Sarasola erakundearen partaide berrizat. Izan ere, aipatu donostiarrak saiatuko da oraindik aurrera betetzen igaz Koldo Mitxelena maisu zenduak utziriko hutsunea. Dena dela, euskaltzain berri baten izendatzea beti garrantzitsua izan arren, joan den astekoan ohi den baino zurrumurru gehiago bildu zen Euskaltzaindiako inguruan zeren eta —Sarasolaren aukeraren aurkako ezer inork ez bazuen ere— Jose Luis Alvarez Enparanza «Txillardegi», bigarren hautagaia, hirugarren aldiz baztertu bait zuten euskaltzain aulkitik.

**Jose Luis Alvarez Enparanza «Txillardegi», hirugarren aldiz, bazterturik**

# Ibon Sarasola, Mitxelenaren orde, euskaltzain berria

M. Urkia

**K**oldo Mitxelena hil ondoren, Jose Maria Satrustegi idazkariak jakinarazi zuen haren postua, ohi denez, bete behar zela eta, ondorioz, hautagaien izenak aurkezteko epea zabalik zegoela. Azkenik, bi izan ziren proposaturiko euskaltzain osogaiak: **Ibon Sarasola** eta **Jose Luis Alvarez Enparanza «Txillardegi»**. Biak, donostiarrak.

Sarasolaren aukera ondoko hauek abalatzten zuten: **Villasante, Haritschelhar, San Martin, Barandiaran, Knorr** eta **Salaburu**. «Txillardegi»ren alde **Xarriton, Davant,**


**Irigoien, Krutwig** eta **Zabaleta** lezerratu ziren.

Joan den ostiralean, Gipuzkoako Foru Aldundiaren aretoetan egindako bileran, 21 botu jaso zituen idazkariak, horietariko hamabost bertan zeuden euskaltzainenak eta gainontzekoak bileran azaldu ez ziren euskaltzain osoek igorritakoak. Hamabost botu eman zioten nagusitasuna **Sarasolaren** aukerari. «Txillardegi»k, berriz, bost euskaltzainen laguntza besterik ez zuen jaso. Idazkariak botu bat zuriz zegoela aldarrikatu zuen. Beraz, «Txillardegi» hirugarren aldiz gelditzen zen baztertua Euskaltzaindiaren partaidetzatik.


**Arazoa ez dago merezimenduetan**

**Ibon Sarasola** 1946. urtean jaio zen. Injeniaritza eta Filosofia ikasketak burutu zituen. Ondoren, **Bartzelona** zein **Euskal Herriko Unibertsitatean** aritu da irakasle bezala. Gaur egun **Bartzelonako Unibertsitatean** dago. Literaturan zein hizkuntzalaritzan lan asko egin du. **Mitxelenaren** kultur semetzat jo ohi zaio eta, hain zuzen, errenderiarraren eskutik jaso zuen **Orotariko Euskal Hiztegia** burutzeko lekukoa. Hau izan da, seguruasko, euskaltzain aulkia beregantzeko punturik erabakikorra.

Baina kokka ez zetzan **Sarasolare-**



José Luis Alvarez, «Txillardegi»



Ibon Sarasola, euskaltzain berria.

nean. Inork ez du kolokan jarriko duen-zuen merezimendua. Arazoa «Txillardegi»-ri hiru aldiz ukatu zaiola euskaltzain osoa izatea eta, inoren merezimenduak zalantzan jarri ezin badira, horiek «Txillardegi»-renak dira. Bere alde mintzatu zen taldeak euskal nobelagintzan, batez ere «Leturiaren egunkari ez-kutua», «Peru Leartzako» eta «Elsa Scheelen»-en bidez, egindako eraberritzea azpimarratzen zuen baina, horrez gain, mila lan gehiago hartu

behar da kontutan, besteak beste, orain dela gutxi euskal azentuari buruz aurkezturiko tesia.

#### «Txillardegi»: hiru aukera, hiru galera

Euskaltzain izateko lehenengo aukera 1984an galdu zuen **Jose Luis Alvarez**ek. Ordukoan **Patxi Altuna**, bi bozketa eta zenbait istilu suertatu ondoren, hautatuko zuten Euskaltzaindiakoek **Lojendio** zenduaren aukian esertzeko. Igaz, **Lekuona**

ordezkatu zuen **Lekuona**. «Txillardegi» bigarren aldiz gelditu zen bazterrean. Ostiralekoa hirugarrena izan da eta bat baino gehiago beldur da ea hemendik bi hilabetera egin behar den hautaketa berrian —**Lartzabalen** postua bete behar dela eta— ez ote zaion «Txillardegi»-ri kontrari franko aterako. Araudiari jarraiki, euskaltzain ordezkariak ez du derrigorrez zenduaren herrialde berekoa izan behar baina bere euskalkiaren ezagupena balortzen da. Kasu honetan bederen, «Txillardegi»-k aise menderatzen du **Lartzabalen** lapurtera. Hortik ez dute harrapatuko, baina Iparraldeko bertako hautagai gehiago aurkez liteke... **Oihartzabal, Peillen, Landart...**

#### Euskaltzaindiaren sasiapolitikotasuna, tartean

Baina, besteek ere merezimenduak baldin badituzte, zergatik aipatu behin eta berriro? Hainbeste axola zaio «Txillardegi»-ri Euskaltzaindiako partaide izatea? Ez. «Txillardegi»-ri berari —behin baino gehiagotan aipatu duen bezala— bost axola zaio dagoeneko euskaltzain osoa izatea. Dena dela, gure aldetik erantsiko dugu inori ez zaiola desagradatzen urtetan zehar egindako lana publikoki eta mailarik altuenean onartzea, euskaltzain osoa izendatzea den bezala. Arazoa da jendea hasi dela susmatzen «Txillardegi» ez onartzearen arrazoia ezinikusi pertsonal eta politikoetan —ez ahantzi **Jose Luis Alvarez** senadorea dela, **HBren** partez— oinarritzen dela. Eta, horrela izanez gero, magnifikatzeko borondaterik gabe, Euskaltzaindiatik at gelditzen den bakarra ez da «Txillardegi».

**Mitxelenak** berak esan omen zuen, bizirik iraun bitartean, «Txillardegi» ez zela Unibertsitateko Filologia saileko partaide izango. **Villasante**, bere aldetik, behin baino gehiagotan salatu ditu euskara eta politika nahasi nahian dabilzan horiek. Hori bai, Euskaltzaindiako lehendakariak erraz botatzen ditu zehatz mehatz barrikadaren alde batean lerraturiko eritziak, orain dela gutxi, Gasteizko Hitzarmena zela eta, Gipuzkoako egunkari batean ondotox erakutsi zuen bezala.

Hala ere, amaitu gabeko nobela dugu hau. Bi hilabete barru, **Lartzabalen** postua betetzerakoan, jarraipena. ■